

Pint of Science 2022: zientziak lekua hartuko du Donostiako tabernetan maiatzaren 9tik del 11ra

Zientzia-dibulgazioko jaialdi bat da Pint of Science 2022, ikertzaileak eta jendartea tabernetan elkartzea proposatzen duena

Datorren astelehenetik aurrera, hilak 9, zenbait gairi buruzko 26 hitzaldi zientifiko entzun ahal izango dira, hizkera ulergarri eta hurbilekoan

Donostian, 2022ko maiatzaren 6an. Pint of Science (PoS) nazioarteko jaialdi bat da, eta 5 kontinenteetako 25 herrialdeetako 200dik gora hiritan ospatzen da data berean. Donostia da hiri horietako bat. “Bai zientzia bai zientzian jarduten duten pertsonak ezezagunak dira oraindik ere herritarrentzat. Hori dela eta, PoS jaialdiak herritarrengana hurbildu nahi ditu zientzialariak, tabernetako giro lasai eta lagunkoia baliatuz elkarren arteko hartu-emanak hurbiltzeko”, adierazi dute jaialdiaren koordinatzaileek.

Maiatzaren 9tik 11ra, Donostiako taberna batzuetan, askotariko gaiei buruzko 26 hitzaldiz gozatu ahal izango du jendarteak hizkera ulergarri eta hurbilekoan, hala nola giza gorputza, gizartea, gure adimena, planeta eta zientzia faktikoak. Donostiako informazio guztia [hemen](#) aurkitu dezakezue.

Jaialdiaren 7. edizioa da hau, eta aurten bere jatorrizko izaera berreskuratuko du tabernetan, bi pandemia-urte zail igaro ondoren. Pint of Science 2015ean iritsi zen Donostiara, CIC biomaGUNEko zenbait ikertzailearen eskutik, eta urtez urte, jaialdiaren programa eta jarduerak haziz joan dira parte-hartzaile gehiagorekin. Ildo horretan, PoS 2022 jaialdian, ikerketa-zentro, unibertsitate eta zientzia-komunitateko erakunde hauetako hizlariak hartuko dute parte: CIC biomaGUNE, DIPC, Tecnalia, BCMaterials, UPV/EHU, CFM, CIC nanoGUNE, AZTI, Polymat, Mugaritz, Aiur Euskadi 21 eta Biodonostia OII. Saioetan, zientziari buruz solasean arituko dira ikertzaileak, garagardo bat hartuz, hiriko lau tabernetan.

Jaialdiaren antolaketa eta koordinazioan CIC biomaGUNEko zenbait ikertzailek hartu dute parte, eta, horrez gainera, [Glycotechnology](#) ikerketa-taldeko kide diren Anna Ballesteros Lázaro eta Damián Pérez Martínezek —karbohidratoen zientzia eta teknologia aplikatuaren oinarriko ikerketan eta ikerketa aplikatua aritzen dira— “La Ciencia más Dulce” izenburuko hitzaldia emango dute, maiatzaren 10ean, Mala Gissonan (Zabaleta kalean) 19:00etan.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete jaialdiaren babesleei, haien laguntzarik gabe ezingo bailitzateke PoS 2022 antolatu. Hauek dira babesleak: Vadillo Asesores, Nabla, CIC biomaGUNE, Polymat, DIPC, Aranzadi Zientzia Elkarteak, FMC (An Agricultural Science Company), CFM, Fomento San Sebastián, CIC nanoGUNE eta BCBL.

Pint of Science jaialdiari buruz

PoS 2013an sortu zen, Londresko Imperial Collegen. Michael Mostkin eta Praveen Paul ikertzaileek jarduera bat antolatu zuten beren laborategian, esku artean zeukaten ikerketa gaixotasun mentalak zituzten pertsoneri erakusteko helburuarekin. Oso jarduera inspiratzailea izan zen. Beraz, ikertzaileek pentsatu zuten baldin eta jendeak laborategietara sartu nahi bazuen zientzialariak ezagutzeko, zergatik ez ziren haiek joango jendea zegoen tokietara?

CIC biomaGUNEri buruz

CIC biomaGUNE biomaterialen alorreko ikerketa kooperatiboko zentroak, zeina Basque Research and Technology Allianceko ([BRTA](#)) kide baita, punta-puntako ikerkuntza egiten du Kimikaren, Biologiaren eta Fisikaren arteko eremuan, eta arreta berezia jartzen du nanoegitura biologikoen eskala molekularreko propietateetan, bai eta haien aplikazio biomedikoetan ere 2018an, “María de Maeztu” Bikaintasun Unitate izaera aitortu zioten bikaintasun-baldintzak betetzeagatik, zeintzuen bereizgarri baita dagokion jarduera-esparruan inpaktu handia eragitea eta lehiakortasun-maila handia izatea mundu mailako zientzian.